

Ildegi edo kanposantu berria egiteko lanak aurrera dijudaz. Entzun degunez San Juan alderako egingo diote.

OLETA

Ongi etorririk maitakorrena «Oleta»-T.

Jose Goikoelexea Zulaika

Ortzlari ta sendagilea

Ortiz berriak jarri ta txarrak ateratzeko ortzlari trebe ta konfiantzakoa

Mayor 1, 2.º — DONOSTIA

ALBIZTUR

ARAUDI BERRIAK

Gure Udalak oraintsu oniritziar jarri dizkigun araudi edo ordenanzak, erderaz bakarrik ezarriak atera dituzten liburuxkak, erriko etxe guztietara zabalduta dituzte noski.

Araudi-dun liburuxkak etxe guztietara zabaltzea, osi ongi derizkiot. Liburuxko oiek erderaz bakarrik ateratzea, ordea, ez ala.

¿Araudi oiek erderaz argitaldu bear ba ziran, euskeraz ere zergatik etziran argitaratu bear, bi zinegotzi edo konzejal abertzaleak arrazoi aundiz alaxe egitea nai eta eskatu omen zuten bezela? ¿Zergatik ez...?

Guztiok euskaldunak geran erri onararako eta etxe guztietan banatzeko atera dizkigun liburu oiek, (banaka batzuek gainerako biztanleak) ongi ulertu edo entenditu ezin degun izkuntza ortan bakarrik egitea, tamalgarrria da noski. Euskeratuak izan bala, besteren bear gabe, guztiok eta bakoitzak erraz ulertuko genituen, araudi oiek adierazteko, geyenak, bestezaz baliatu bear izatea, tamalgarrria ezazik, mingarrria ere ba-dala derizkiot.

Beren gogo edo seta, betetzeagatik, noski, gogon izendatu ditudan liburu oiek erderaz bakarrik aterazizte orreko, geyen dauzkagun zinegotzi zabaltzaileak, gure begiko euskera eta eritarrantz maitasun eta erruki gutxi agertu dituzela, esatea, ¿geyegi esatea ote da?...?

Alkar eta euskera biotz bigunakin, zintzoki maita izaten deygogun ba-gabilta denok alkarrekin, Jainkoa egongo da poz-ozik gurekin.

EGO GABEKO TXORI GAUTIAI...

Zar eta gazte,
Nora zoazte;
¿Oker ez ote?
Nik ala ustel
Ortikan kalte
Asko dezute
Targitu arte
Geldi zaitezte.

LUISTAR

BAR-RESTAURANT

Auñera

Ongi ta merke jaten da etxe ontan
Errijoa'ko ardo bikainenak
Urbieta 12 — DONOSTIA
URRUTIZKINA 1-25-78

ALTZA

Mariari opadutako ill eder ontan egiten diran elizkizun bikaitetara asko urbiltzen gera. Tamalez joan litzekienak gelditzen dira juan gabe.

Nekazarien zaindari egunean Isidor deun egunean izan zuten jaupa nagusiya emengo nekazariak 10'ian Frantzisko deunaren ordenake Aita batek egin zuan itzaldiya. Oztetza aundiya batu zan.

EZKONTZA

Aste ontan bein betiko uztartzen zaigu Lizenta «Arruasko neskatill ona, Donosti'ko gazte batekin. Zorion ugari opa dizkizutet.

GAXORIK

Gaizki samar egon ondoren, ondo arkitzen omen da orain Kastillun besezeko Manuela andre ona. Aurrera ere ala opa diyot. Baita ere ondo ezik oyeratua omen dago Arruti'ar Imanol luitar gazte.

Luitarrak datorren igandean dute beren illeroko jaun artzea. Al-dezuten guztiyok etorri zaitezte. Ea aulki guztiyok bete beterik ikusten ditugun.

ZUGAIZPE

ALZAGA

EUSKEL IZENAK

Gure lagun maita eta abertzale onak diran Sarasola'ar Joseba eta Agirre'ar Josune'k eren kabitzoko lenengo igaliari Miren Gurutz izena jarri diote.

Zorionak eta jarraitu aurrera ere orrelaxen.

ALTZA-GARATE'KO AMA NESKUTSAREN

Basatxonuan urterolez, Jaunaren Igo kunde egunez, erromeri polita egin zan, ozte aundia bildurik.

Arratsaldian txadon otolitzen ondoren Maria'ren alabak, guztiz ederki abestu zituzten lore eskeintzak.

ANTZERKIA

Emengo abertzalen gogua ala zala-

ko txadon jaien ondoren, Isasondo'ko Euzko Batzokia'ko antzezlariak, «Neskazar» antzeztu zuten. Guztiz ederki antzeztu ere. Naiko parre eraginazi zuan antzerki parreragile onek.

Berriz ere Paskuetan botatzekoak dira ori bera, askoren gogua ala dala.

MURUMENDI

ALTZOLA

EUSKO BATZOKIAREN ZABALKUNDEA

Igandean oztetza askorekin eta alaitasunik aundienaren artean ospatu gendun gure JEL Batzokiaren zabalkunde eguna; goizeko jaupa Donean asko eta asko gifiñ Mai donera ureratu gifiñak. ¡Ura edertasuna aibeste gizaseme eta emakume, Alguztidunaren aurrean orrela auspesturik ikustia!! Jaupa nagusian ere oztetza ikaragarria zan. Elgoibar'ko Abesbatzak bikainki abestu zuan. Buakaeran ikurriñaren onespina izan zan: egurdian Mendaro'ko ezpatadantzari txikiak ederki dantzatu ziran, ondoren alaitasunik aundienaren artean oturuntza izan zan.

Arratsaldeko itzaldia sakonenetakua izan zan, itz egiñik Urtzelal'ar Julite andereño lirañak euskeraz eta Irissari'ar Joseba Koldobika jaunak eta Basaldua'ar Kapa jaunak erderaz.

Oso txalotuak izan ziran, ainbat egi azaldu ondoren.

Gero Kurioia jaunak olerki eder batzuek abestu zituan eta amaitzeko, ozte guztiak, buru utsik eta berari dagokion itzal edo errespetuakif, Euzko Abendaren ereserkia abestu zuan.

JAIOITZA

Landa'ar Lauren eta bere emazte Mendikute'ar Andoni'k beren lenengo semetxua izan dute. Zorionak.

MENDI ZALE

Dr. R. Aranburu

LARRU AZALEKO GAITZEN SENDAGILLEA

Egunero amaizetarik ordn bat'era ta lauetatik zazpietara
Fueros, 5-3.º Urrutizkinea 1-93-85
DONOSTIA

AMASA

EZKONTZA

Uri onetan ezkondu da Zipitria'ar Sorabilla'ko mutil gaztea, Altuna'ar Miren Amezketa'ko neskatillarekin. Entzun dedanez uri ontako «Erreka» baserrian jartzen dira bizitzen. Zorionak.

EUSKAL-IZENA

«Borda» baserriko Mujika'ar Erroman eta Arozena'ar Estanis'ek lenbiziko alabatxoa izan dute. Ugutzatzen Miren Igone euskal izen polita ezarri diote. Zorionak gurasoi ta jarrai orrela euskal izenak ezarriaz.

JAUPA BAT

Joan dan igandeko amarretako jaupa Euzko Batzokiak aterazi zuan, Sasiainbarrena'ar Augustin aberkide zintzoaren gogo alde. Goyan bego.

JOAN DAN IGANDEKO ARI APUS-TUA OREJA'N

Ozte aundia zan joan dan igan-

dean Oreja'n, ari apustua ikusten.

Irabaztalle gelditu ziran, emengoak.

ALAXEN

Letra garbixeagoa egiten sailatu zaitea arren.—T.

ARRASATE

IGOKUNDE-EGUNA

Asentzio egunez eta batez ere urren go igandez egualdirik ederrenetakoa egin zuan, eta mendigoi-zaletasuna ederki erakutsi zuten gazteak... eta zarrak Kurtzebarri, Udalaiz, Anbotora ere joan ziran batzuek. Baita Kantantzar-gañera sendi asko ume ta guzti bazkaria artu ta giro ederrean eguna gain aietan igarotzera. Santa Barbara gaina ta Otaola-zelaian ere bazan umore ona.

Gutxi batzuek lanera joan ziran, lan-eguna zala Asentzio eguna-ta; geyenak emakumeak, beti bezela. Noizbait amaituko alda lotsagarrikeri ori.

SAN VICENTE FERRER

Arrasate'arrik ain maita duten santu aundi onen bederatziruena Asentzio-egunez amaitzen da aspaldiko urteetan. Bergara'ko dominiko Al-ta Antia'k egin zuan meza nagusitan itzaldi eder bat erderaz.

ERIOITZAK

Alastui'ar Seber abertzale ta eusko-langile zintzoa il zan asteazkenean gaixoladi luze baten ondoren. (G. B.) Baita Uribarriko Uribe baserriko Pedro ere. (G. B.) Gure samin-agurra senideai.

EZKONTZAK

Larunbatean iru ezkontza ziran Mendizabal'ar Xeferin Arabaolaza-tar Errose'kin; Zarragoa'ar Nikola elektrizista edo tximistargazalea Montzo'go Etxeberria'ar Pilare'kin; eta Arantzazu'ko eleizan Munio'ar Yulen, Gil Robles'en txoferra emengo Letona'ar Sabiñe'ekin. Madrid aldera joanak ezkontz-ibilbia egiten. Zorionak.

EUSKEL IZENA

Arantzazu jarri diote Usobiaga'ar Purdenti'aren alabatxoari. Zorionak gurasoi ta gure ikastolan dabilzan bere iru anaia.

AZTARKEAK

Ikastaro azkenean sariak artzeko azterketak izango ditugu; ia gainean ditugu ta oraintxe ikasten saiatzeko garaia. Antzerki polit bat ere eman digute ikasteko, ea saritarako diru apur bat batzen degun. Orain ez dau kagu gelagorako astirik eta agur.

Datorren aste arte Jaungoikoak gura ba dau.

IKASLE

Joan dan astean ez genun zurekik artu.—T.

Soñeko ebakitzte irakastola

Amabost egunian erakusten du IZA'ar EUJENIAK mota guztietako jantziak txurik naiz kolorezkoak gizon, emakume eta aurrenak ebakitzten, «Sagardoal»-eraz Maistrak euskeraz itz egiten du San Martin kalea, 29. 4.ºn. bizitza ezkerretara.—DONOSTIA

ARRONA

Igokunde egunean lenengoz Jauna artu zutenen izen abizenak: Alzpuru- ar Iñazio, Azpeitia'ar Joxe, Ajarris- ta'ar Pedro, Artetxe'ar Iñazio, La- surtegi'ar Joxe, Artetxe'ar Joxe, Egaña'ar Faustino, Iribas'ar Joxe Prantxiku, Alberdi'ar Joxe, Egaña- tar Joxe Antonio, Artetxe'ar Joxe, Manzisidor'ar Joxe Mari, Goenaga- tar Joxe Lino, Makazaga'ar Maria, Zubimendi'ar Maria Luisa, Urresti- lla'ar Justina, Uranga'ar Milagrosa, Goenaga'ar Angeles, Azpeitia'ar Ma- ria, Uegun'ar Elena, Galdona'ar Karmen, Boenetxe'ar Maria, Iraola- goitia'ar Felisa, Elizaguirre'ar Teresa, Urrestilla'ar Maria, Galdona'ar Eu- xebi, Zubizarreta'ar Eulalia, Man- zisidor'ar Kasilda, Galdona'ar Merze- des, Unanue'ar Maria, Agirre'ar Presentazio, Murua'ar Pilar. Arra- tsaldeko elizkizunaren ondoren, Ma- riaren alaben eta Luitarren elkar- teetan guztiak sartu ziran. Nexka mu- tillen izen-abizenakin gaurko berri txorta bete degu. Emengo berrik ja- kin nai badituzte, artu astero AR- GIA ta irakuriaz.

ZIOLAR

Antxe nitzan, baño Jaunari eske- rrek arramaskatxo txiki bat baizik ez nuan izan. Eskarrikasko «Ziolar» biotzekoa.—T.

Arantzazu'ra dei egiten zaizue Kor- pus egunerako edo ill onen azkene- rako. Goizian juan eta arratsarako etxeratu. Juan etorria sei laurleko izango da. Onetarako eman zuen izen- nak Maria Balenziaga'ri eta azkar ibili bestela ezta lekuri izango ta.

Jesus M. Olañeaga

SENDAGILEA

SUDUR-EZTARRI-BELARRI

Korreo, 50-Urrutizkinea 269

TOLOSA

AZPEITI

AZOKA

Igaro dan asteartean gauzak egin zituan sanearriak xentimo batzuek gutxi-gora-bera ondoren diojoazen oiek dira: Ollak 18 ta 17 laurleko biko; ollaskoak 13 ta 12 laurleko biko; arrautzak 2,25 laurleko amabi- koa. Gaztaya 3,50 laurleko kilo; bizitarako txerri gaztiak 16 ta 17 du- ro bakoitza; arkumiak 2,15 laurleko kilo; babarrun gorriak 5,75 lakariak; babarrun txuriak 5,25 laurleko laka- riak. (1).

JAUNARTZEA

Igaro dan igandean izan zuten Mi- ren alabak eren illeroko Jaunartzea. Orain Mayetzeko ill ederrian gaude- lako goizeko luak eta nagitasunak alde batera utzita, Ama Birjiñari ottoi goxo ta xamurrak egitera gure neskatxak egunero zintzo Agustin Do- nearen eleizara jarraitzen dute.

JEXUXA

(1) Orrelako jakingarriak eman bear zenituzteke idazleok. Askok eta pozik irakurriko berri ori.—T.

OLA BAT ERRE

Ostiral goizeko 5'etan su eskilla (kampaia) esnatu gihuzen.

«La Amuebladora Azpeitian» deri- tzalon ola ziara erre zan. Kalteak edo galerak aundiak dira. 120.000 lau erria lekorenak edo «aseguratu» zegoen.

Gaizki zebiltzen bere jabeak, su ba- teonbete emango ziola zurumuru azkar zabaldu ere. Gelago oraindik Andre bat sartu ta irteten erretako o- lotik su azaldu baño pixka bat lena- go «serenuak» ikusi zula ere esaten zuten. Beriala epaileak espetxeratu ditu bi gizaseme ta bi emakumezko, guztiak olaren jabeak, eta sartu ta i- kusit zan emakumea. Aitortu ere be- rak su eman ziola. Irurogei urte ditu eta bere izena Aldaulur'ar Joseba Andone. Tamalgarrria. Ez zegoen lo and- re gaxoaren adimena etsaia aif gog- or lotzeko. Erruki dezagun.

ASTO EDER BAT

«Ondaribide» deritzaion basetxera bertako nagusi Loinaz'ar Sekundi- na'k «paradan» asto ar guztiz ederra jarri du. Gipuzkoa'ko aldun edo «di- putazioa»k ekarritako lau astoetatik bat au omen da. Astoak bakarrik ez- taliko omen ditu, beraz beorrik ez.

LASTERKETA

«Aya'ko Txikiak» eta emengo «Tx- iak» Uztaila'ren lenengo egunian jo katzeo apustua egin dute. Ayarrak 126 bira edo «buelta» zezan enparan- tzari ta emengoak 122: 452 metro ben- taja. Emen edo Tolosa'n jokatzeko.


IRI DEMA

Gaur jokaturko dute emengo zezan zurutari etzian barkatzen eta ezta enparantzan «Zabala» Getari'ko eza- gunaren irikiak eta emengo «Antzi»ko ASKEKO BERRIAK bei txuriak.

TXALINTXO

VASCONIA OPTICAL

(Merkieta saltzen duan etxea.)



Ptas.

Nikelezko befaurrekoak 4,50
Urrezko befaurrekoak 18,—
Krisalik fiñenak 2,—
Krisal borobilduak, bakoitzak... 5,—

San Jeronimo, 17 DONOSTIA

Udaletxeko atzean.

DEBA

BERGARA'RA

Abesbatzakoak oso pozik azaltzen gera gaur Bergara'ko anakin bat egiteko. Entzun degunez sariketa or- tarako gertu zeuden guztiak ezetza e- gin dute, baño deba'tarrak gertu gau-

de bildur barik: oraif besterik ez di- jualako dei egin bear izan diote On- darrabi eta Irun'goai auek lenak da- izkatela ikasita abestu biar c. an a- bestiak eta «Gure izkuntza» eta «An- tzin oiturak» abestiak abestu bear di- ra. Ontzat ezin leike artu beste bi orrerri dei egitea. Bergara'ko anala- rreba! agur ta erdi eta gero arte.

MOTRIKO'KO OSTIKALARIA

Oso pozik azaltzen zaizkigu Motri- ko'tarrak gure Batzokiako irabazi dio telako ostikoka partidua, baño «El Dia» izparringira baldi nun az. lizen badute, lengoak berriz jokatzeko, eta gaitzailleak bakallau jan bat guzien- tzat ordaintzeko. Uste det «Arno Men- di» eta lagunak jasoko dutela aupda au.

ARPIDEA

lko.

Lenago batua
Arriola'ar Martin 1,—
Unanue'ar Domeka 1,—
Agirre'ar J. Miren 1,—
Valle Mendizabal sendiak 4,—
Guzira 26,—

Jarraitzen du.

BURNI BIDE

ELGOIBAR

EUSKEL IZENA

«Miren Igone» euskel izen politak ezarri dizkate Lapramendi baserriko senar-emazte diran Arrizabalaga'ar Mikel eta Zuluaga'ar Joseba'k izan duten alabatxoari. Zorionak. Ori da ikasbide ederra ipiñi dezutena.

IZPAR BELTZAK

Bederatzi illabete ludian zerama- zen Arrieta'ar Euxebi «Lerun txiki» ko aurreratu da.

—Altzola auzo urian, 79 urte zit- ula il da Gabilondo'ar Josebe, gure lagun Azpiazu'ar Jagoba'ren ama.

—Emengo gaxo etxean, Oñartzaba- l'ar Miren Gurutze anderea.

—Larogei urte beteta Jharisti'ar Jo- kine anderea.

—Irurogeita emeretzi urtekin Sasie- ta'ar Benture anderea.

—Irurogeita amazapi bete ondoren «Urkaiz txiki» baserriko Juaristi'ar Pantzeka. (Goian begoz).

Laguntzen diegu atsegabian sendi- koeri eta zuk, irakurle, otoi beren ahi- men alde.

JAIOITZA

Aurtxo bat izan dute Ondartza'ar Mateo eta bere emazte Arbulo'ar Bir- kide'k. Zorionak.

AUTU

Santonia (Santander) uriko irakasle, autu dute gure lagun eta errikoseña Etxaniz'ar Koldobika. Zorionak eta ondo bizi.

EZKONTZA ATIAN

Laister uztartzekua da emengo «E- rrezabal» baserriko Agirre'ar Balen- tin, Ubillo'star Miren gernerak nes- katilla politarekin. Zorionak aurret.

ANTXINTXINKETA

Datorren illan amazapien emengo Arregi'ar Luziano «Maiortak», Azko- ti'ko Agarretxo'ko Uzin'ek Azkoiti'k Azkarate gañera egin zuan «marka» (25 minutu ta 44 segundon) ondo bat- tzeru diua. Bizi bagera ikusiko degu.

SENDATU DA GUZTIZ

Ia beste ludiratu zan Astiasaras'tar Jakinda, guztiz sendatu da. Telle- txea... laister or dezu «Xap» len ba- ño ere umore obiarekin. Posten gera ba benetan ta jarrai idazten.

ANTZERKIA

Igokunde egunian Jel Batzoki'ko an- tzezlariak «Itxaropena» aretuan, oso ederki antzeztu zuten «Aitona ta Bi- lloba» antzerki polita. Poxpoliak ere oso ederki bete zuten beren egin bea- rra. Guztiak txalotuak izan du ziran. Entzun neriak ere.

AIXERIXA

IXIDOR DEUNA

Guztiz aundiro ospatu dute gure ba- sarritar jator auek beren zabariari- ren eguna, Emengo Euzko Nekazari- en Bazkun onak sekulako jaia eratu di- gu. Aurtan eman diote asiera jai oni ta emendik aurrera ziur gaude egun au basarritar auek jai aundizat artu- ko dutela; artu biar lukien bezela ga- ñera.

Euskotar zintzuak beti beren jaiari asiera elizan eman izan dioten giza- la, auek ere ala eman diote. Amarrak

Asmaketari erantzuteko oñitxo

1.ºn. galdeera

2.ºn. galdeera

3.ºn. galdeera

4.ºn. galdeera

5.ºn. galdeera

6.ºn. galdeera

7.ºn. galdeera

8.ºn. galdeera

9.ºn. galdeera

10.ºn. galdeera

11.ºn. galdeera

12.ºn. galdeera

13.ºn. galdeera

14.ºn. galdeera

15.ºn. galdeera

16.ºn. galdeera

17.ºn. galdeera

18.ºn. galdeera

19.ºn. galdeera

20.ºn. galdeera

21.ºn. galdeera

22.ºn. galdeera

23.ºn. galdeera

</